



BEZ: etorkizuneko arau berriak

Merkataritza elektronikoa erraz-erraz



BEZ-AK MERKATARITZA ELEKTRONIKOAN IZANGO DITUEN ARAU BERRIAK: JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA

Informazio hau EBko kontsumitzaileentzat da

› Zer aldatuko da 2021eko uztailaren 1etik aurrera?

Mugaz gaindiko merkataritza elektronikoz hitz egin behar dugu, aplikatu daitezkeen Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) modernizatu egingo delako EBn. BEZ-arau berriak datoz EBko merkataritza elektronikora, gure merkatu bakar digitalera hobeto egokituak: lehen baino bidezkoagoa, soil eta errazagoa, eta iruzurra egiteko gaitzagoa.

Zuk, EBko kontsumitzaile modura, ez duzu ezer berezirik egin behar; beti bezala eta betiko lekuetan erosten jarraitu, erosketa-ohituretan ezer aldatu gabe. Baina, hori bai, komeni da jakitea 2021eko uztailaren 1etik aurrera ez dela BEZ-salbuespenik egongo 22 eurora arte balio duten ondasunen inportaziorako. Hortaz, EBn inportatzen diren salgai guztiak egongo dira BEZ pean. Hartara, hemendik aurrera, BEZaz den bezainbatean, EB kanpotik inportaturiko salgaiak ez dira jada inola ere lehenetsiko EB barruan erositako salgaien aldean.

Hortaz, ikus dezagun arau berriek zer ekarriko duten 2021eko uztailetik aurrera:

- › Bermatuko da ondasunak eta zerbitzuak kontsumitzen diren lekuan ordainduko dela BEZ;
- › Europako eta atzerriko merkatuetan, merkataritza elektronikoa dabiltzanen artean lehia garbia berrezarriko da; baita merkataritza elektronikoa eta betiko denden artean ere, are eta garrantzitsuagoa baita COVID-19ren krisi honetan;
- › Sare bidezko bi sistema berri esker, mugaz gaindiko salerosketetan, eroslea EBn dagoenean, enpresek sistema erraza eta soila izango dute, beti bat eta bera, BEZ-obligazioak ordaintzeko, honatx: BEZ-leihatila bakarra (OSS), eta inportazioetarako leihatila bakarra (JOSS).

**MERKATARITZA ELEKTRONIKOAN
BEZ ARAUAK ALDATU EGINGO
DIRA.**

INFORMA ZAITEZ!

KP-04-21-005-ES-N

© Europar Batasuna, 2021

Argitaraldia: 1.a argialetxe honetan: 2021eko ekaina • Ale-kopurua: 170 ale
• © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza • Internet: www.euskadi.eus • Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofi ziala) • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz) • Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L. • Lege-gordailua: LG G 301-2021



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco





› Zertarako dira, baina, merkataritza elektronikora datozen BEZ-arau berriak?

Teknologiaren aurrerakada dela-eta merkataritza elektronikoak geroz eta indar handiagoa duen honetan, salerosketak, negozioak eta erosketak jada ez ditugu lehen bezala egiten. Joera horrek are eta indar handiagoa hartu du COVID-19ren aurkako erantzunak eta Europa guztian izan diren etxeratzeek hauspoturik, baina etorkizunean ere hazten jarraituko du.

Gaur egungo salbuespenak EBko enpresei egiten die kalte, beti daukatelako BEZ kobratu beharra. Horregatik, inportatzen diren salgaiek ez dute garbi jokatzeko EBko salgaiekiko. Eta inportaziorako dagoen BEZ-salbuespen hori gehiegi ere erabiltzen denez, are eta makurragoa da lehia.

Bada garaia BEZ-arauak eguneratzeko, zerga-sistema bidezkoa izan dezagun denon onerako, eta BEZ deklaratzeko eta ordaintzeko prozesua, berriz, samurragoa.

EBko herritarrek ikusiko dute diru-sarrera publikoak urtean 7000 milioi euro handiagotuko direla. Prozesuak gardenagoak baldin badira, BEZ-ordainketak ere ugariagoak eta BEZ-iruzurra, berriz, meheagoa.

› Betiere zu, kontsumitzaile zaren horren, hobe beharrez

Sarea badarabilzu Europan erosteko, ez duzu ezer berezirik egin behar BEZ-arau berriak betetzeko. Diseinatu dira bermatzeko zerga-bilketa bidezkoa izango dela eta arau errazagoak eta koherenteagoak izango ditugula tartean gabiltzan guztiok.

Gainera, 2021eko uztailaren 1etik aurrera, zure saltzailea BEZ sistema berrian erregistratzen baldin bada eta inportazioetarako leihatila bakarra erabiltzen baldin badu (IOSS), EB kanpoan erosten dituzun 150 eurora arteko merkantzetan aldaketa horiek ez dizute inolako karga gehigarriker eragingo aduanetan. Hasieratik jakingo duzu sareko azken prezioa, ziur, entrega-garaian ustekabeko zergarik ordaindu gabe, gaiak EB barrutik edo kanpotik etorrita ere. Hornitzailea ez baldin bada IOSSn erregistratzen, erosleak BEZ ordaindu beharra izango du, eta, ziurrenik, baita aduana-bulegoen tasa batzuk ere, garraiolariak kobratuko dituenak merkantziak EBn inportatzen direnean.

› Argibide gehiago: <https://ec.europa.eu/vat-ecommerce>

